

ZER LANDATU DEZAKET MARTXOAN?

Martxoa **oraindik neguko hilabetea izan ohi da**, ala ere, dagoneko eguna luzatzen hasia da eta laster batean ordua ere aldatzen den bezala, gure endorfinak gehitzen joango dira. Baratzean ere antzeko zerbait gertatu ohi da; izan ere lurra argi ordu gehiago jasotzean, pixkanaka bada ere, epeltzen hasten da eta neguko baratzaren azken uztak datozen bezala udaberri udarako uztak prestatzen hasi beharra dago. Baina zein barazki dira egokiak garai honetan landatzeko? Izan ere apirila maiatza pasa arte oraindik izozte gogorren batek gure barazkiak erabat honda ditzake.

Honegatik jarraian garai hauetan landatzeaz gain, izozteen aurrean gainerakoek baino erresistentzi hobea duten barazkiak zerrendatzen dizkizuegu:

Azenarioa: Ereintza ilaratan burutzen da eta horrela ondorengo bakanketa (hazten utziko ditugun landareen eskuzko hautaketa) errazten dugu. Ilera artean 25 cm-ko tartea uztea komeni da, hazia gainazaletik gertu eta lur arinarekin tapatuko dugu, ondoren zapaltzeko. Erne eta 3 edo 4 astera lehen bakantzea burutuko dugu; bigarrena beste 3 astetara egingo dugu eta horrela 10 cm-ko tartea ziurtatuko diogu landare bakoitzari. Bigarren bakantzean ateratako ale txikiak sukaldaritzan aprobetxatu ahal izango ditugu.

Zerbak: Ilarak erabiliaz, 40 cm-ko tarteekin egindako zuloetan botako dugu hazia. Zulo bakoitzeko 2 hazi botako ditugu eta ondoren 1 zm. lurrekin estaliko da. Behin ernetzen direnean, zulo bakoitzeko landare bat utziko dugu.

Erremolatxa: Zerbaren famili berdinekoa izaki, hazia ere berdina da. Martxotik aurrera botako dugu ilaratan hazia 30 cm-ko tartea erabiliaz. Ernetzean bakandu egingo ditugu, 20 cm-tik behin landare bat utziaz.

Beste batzuk: Espinaka, Arbiak, Patatak, Arbitxoak eta garaiko azak.

¿QUÉ PUEDO PLANTAR EN MARZO?

Marzo sigue **siendo un mes invernal**, pero el día empieza a alargarse y pronto cambiarán la hora, con lo que nuestras endorfinas irán en aumento. Algo parecido sucede con la huerta, ya que, al recibir más horas de luz, la tierra empieza a templarse, de modo que a medida que recogemos la última cosecha de invierno, tendremos que preparar la de primavera-verano. ¿Pero qué hortalizas son las adecuadas para plantar en esta época? Hasta finales de abril mayo, aún corremos el riesgo de que una helada fuerte estropee nuestros cultivos. A continuación os detallamos algunas especies adecuadas para esta época y que son más resistentes a las heladas:

Zanahoria: Se siembra directamente en la tierra en filas, lo que facilita su posterior aclareo (eliminar manualmente parte de las plantas que han germinado). Conviene dejar una distancia entre filas de 25 cm.; entierre poco las semillas, recúbralas muy ligeramente con mantillo y después afirme la tierra. Haga un primer aclareo a las 3 o 4 semanas después de la nacencia y 3 semanas después, el segundo aclareo para conservar una planta cada 10 cm. Las zanahorias de este segundo aclareo se pueden aprovechar para comer.

Acelga: Siembre en hoyos dispuestos en filas a 40 cm de distancia. Deposite 2 semillas por agujero bajo 1cm de tierra. Aclarar una vez que hayan brotado, dejando una planta por agujero.

Remolacha: Al ser de la misma familia su semilla es igual al de la acelga. Sembrar desde marzo, en filas a 30 cm entre ellas. Haga un aclareo después la nacencia, dejando una planta cada 20 cm.

Otros: Espinaca, nabo, patata, rabanito, berza de temporada...